

IRUÑERRIAN TAXI ZERBITZUA BATERA EMATEKO LURRALDE EREMUAN TAXI ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURRETIKO HERRI KONTSULTA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa betetze aldera, eta aldaketa egin aurretik, lehenago aipatu den ordenantza aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

1.- Ordenantza egokitzea, malguagoa izan dadin taxi-zerbitzuaren erabiltzaileen eskaera eta beharrei dagokienez.

2.- Zenbait izapide ezabatzea, esate baterako, taxiaren baimen profesionala lortzea, hartara, taxi-lizentzien transmisioa arintzeko eta bai langile soldatapekoak kontratatzea ere.

3.- Egun indarrean dagoen ordenantzaren aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak egitea.

- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.

1.- Iruñerriko Mankomunitatea zenbait jarduketara gauzatzen ari da, taxi-zerbitzuan eskaintza hobetzeko eta taxi-zerbitzuaren erabiltzaileen eskaerei eta beharrei arreta emateko helburuarekin. Indarrean dagoen ordenantzak exijitzen du taxiaren baimen profesional bat lortzea taxi-zerbitzua eman ahal izateko Iruñerriaren esparruan, dela titular moduan, dela soldatapeko langile moduan. Izapide horrek atzerapenak eragiten ditu titularrek transmititu edo eskualdatu eta kontratatzeko orduan, kasu askotan interesdunek ez baitute baimen hori eta egokiak diren proba edo azterketak egin arte itxaron behar baitute. Beste alde batetik, ez da koherentetzat jotzen izapide gehiago ezartzea transmisio eta soldatapeko langileen kontratazioetarako, zerbitzuaren eskaintza handitze aldera gauzatzen ari garen txoke-neurriekin koherentzian.

2.- Beharrezkoak diren aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak.

- c) Arauaren helburuak.

1.- Negatiboki eragiten ari diren zenbait alderdi konpontzea edo hobetzea, malguagoa den eta beren eskaerekin bat datorren taxi-zerbitzua eskainita erabiltzaileei.

2.- Zenbait izapide ezabatzea, esate baterako, taxiaren baimen profesionala lortzea, hartara, taxi-lizentzien transmisioa arintzeko eta bai langile soldatapekoak kontratatzea ere.

3.- Beharrezkoak diren aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak egitea.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Ez dira planteatzen.

Herri-kontsultaren hartzaileak:

- Iruñerriko herritar guztiak.
- Iruñerriko taxi-gidariak.
- Iruñerriko taxi-gidarien elkarteak.